

## / Nabarmenezkoak

- > Zabalik dago saharar umeak udan hartzeko izena emateko epea (2. or.)
- > 55.360€ baliabide ekonomikorik ez dutenentzat, euskara ikasteko (4. or.)
- > Getxo Kirolak-ek 27.000 harpidedun inguru izaten jarraitzen du (5. or.)



73 plan udalerriaz gozatzeko Aste Santutik aurrera (3. or.)

**Hitzaldi musikalak.** Ostirala, hilak 23, 18:30ean, "Evolución histórica de la orquesta sinfónica. Innovaciones a partir del s. XIX", Jose M<sup>a</sup> Bretos Linazarekin. Areetako Musika Eskolako fonotekan. 3€.

**Ikasteko gelak Romon.** Aste Santuko oporraldian, ikasteko gelak zabalduko dira udal Euskaltegian, beheko solairuan (Lope de Vega, 12). Ikusi martxoaren 26a, astelehena.

**A-  
GENDA**

## "Scherezade" eta "Jon Braun" Areetako Musika Eskolan

Bi antzeppen izango dira datorren astean Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Hilaren 24an, larunbatean, 20:00etan, Vaivén Producciones izeneko taldeak *Scherezade y las capas de cebolla* izenburukoa antzeztuko du. Taldekoek diote, "Sherezade bezala, izaera surrealistako gure ipuin tragikomikoko pertsonaiek kontatzen dute, kontatzen diete eta beraien buruari kontatzen diote beren patua elikatzen duen istorioa. Eta horrela biziraun ahal izatea... Amonak bizitza ikusteko modua eta moralak zehazten dituzten ipuinak entzuten ditu eta bere alabari kontatzen dizkie. Emakumeak ipuin horiek errepikatuz egiten ditu eta bereak egiten ditu. Senarrak bere buruari esaten dio "paradisua" eraikitzen ari dela". Ikuskitzuz honen sarreraren prezioa 10€koa izango da.

Bestalde, igandean, hilaren 25ean, 18:00etan, txikienek *Jon Braun* antzeppenarekin gozatu ahal izango dute, euskaraz, Anita Maravillas izenekoaren eskutik. Konpainia horrek *Jon Braun*, Imanol Urbietaren abestiaren indiar ospetsua berreskuratu du, gure bizitzak zehazten dituzten anaien arteko harremanez mintzatzeko, maitasunez eta abenturez beteriko westernean. Sarreraren prezioa 5€koa izango da.



"Sherezade"



"Jon Braun"



## Getxok kriminalitate-indizerik baxuena mantentzen du Uribe Kostan eta EAeko 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien artean

Getxok kriminalitate-indizerik baxuena izaten jarraitzen du Uribe Kostako eta Euskal Autonomia Erkidegoko 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerririk guztien artean. Lehenengo kasuan, Getxok Uribe Kostako (Getxo, Berango, Sopela, Barrika, Urduliz, Plentzia eta Gorliz) delinkuentzia-tasarik (1.000 biztanleko dauden delituen kopurua) baxuena du, 23,07koa; altuena, berriz, 52,46koa da. EAean 50.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrien kasuan ere (Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Irun...), 23,07 da tasa (2016an 23,47 zen), eta udalerrien artean altuena, ordea, 55,51 da. Bizkaiko batez bestekoa 42,19 da eta EAeko 37,36. "Datu horiek erakusten dute Getxo udalerririk seguruena dela, aurreko urteotan jadanik adierazi dugun bezala, eta lan eta baliabideen esfortzuekin segituko dugu gure Udaltzaingoan, segurtasun maila hori mantentzeko", nabarmendu du Keltse Eigurenek, Herritarren Segurtasuneko zinegotzi arduradunak.

**Arau-hauste penalen salaketak**  
Udaltzaingoaren 2017. urterako memorian jasotako datuen arabera, arau-hauste penalgatik 99% salaketa jaso ziren, aurreko urtean baino 31 gutxiago, eta ez zen eraiketei lotutako inolako salaketarik jaso. (Hilketa/ Eraiketa, burutua edo saiakuntza-graduak). Lesioengatik 51 salaketa erregistratu ziren (2016an 49), eta sexu-askatasunaren kontrako gertaerengatik hiru salaketa (2016an bat). Ez zen salaketarik jaso se-

xu-erasoengatik, eta 2016an, aldiz, bat egon zen.

Era berean, ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako 817 salaketa egon ziren (2016an 869). 291 ebasketa egon ziren (2016an 351) eta indarkeriaz egindako 108 lapurreta (aurreko urtean 172).

### Genero-indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta sexu eraso biktimen espedienteak

Udaltzaingoak 11 espediente izapidetu zituen iaz emakumeen aurkako indarkeriagatik (genero-indarkeria eta etxeko indarkeria), 2016an baino bi gutxiago. Genero-indarkeriaren biktimei dagokienez, 9 izan ziren eta etxeko indarkeriaren biktimak 2 (azken kasuan biktimak beti izan dira emakumeak). Udaltzainek, 2017an, guztira, 2.093 zaintza egin zituzten, zaintzapean dauden indarkeriaren bederatzi biktimekin.

**Atxilotutako eta ikertutako pertsonak**  
Udaltzaingoak, guztira, 176 atxilotuta egin zituen, eta 2016an 193 izan ziren (% 61,10 Zigor Kodeari lotutakoak, askotariko delituengatik; % 37,20 bide-segurtasunari lotutakoak; eta %1,70 genero-indarkeriari lotutakoak).

### Programatutako zereginak eta aurreko zerbitzuak

Iaz, guztira, 2.709 zeregin programatu ziren, 2016ko 2.381eko kopuruaren aldean. 1.518 trafikoa eta bide-segurtasunaren prebentziorako izan ziren, 655

herritarren segurtasunaren prebentziorako, 158 kulturako gaien prebentziorako, 17 trafikoko prebentzio-kanpainetarako eta abar.

Herritarrekiko gertutasunaren zereginarri dagokionez, segurtasun-patruielak 1.808 zerbitzu egin zituzten udalerriko kaleetatik (2016an 2.082), eta oinez 1.935 (2016an 1.613).

Zerbitzu bakoitzeko batez beste inbertitutako denbora 87 minutukoa izan zen.

### Istripuak

Udaltzaingoan erregistratutakoaren arabera, urterik urte, behera egin du istripuen kopuruak, eta ezbehar-kopuru gutxi izan da. Trafikoko 398 istripu zenbatu ziren eta 2016an 422. 79tan biktimak egon ziren (2016an 98) eta 319tan ez zen biktimarik egon (2016an 324).

Ez zen hildakorik erregistratu, eta aurreko urtean, berriz, bat egon zen. 11 zauritu larri egon ziren (10 2016ean) eta 92 arin (97 2016an).

LARRIALDIKO GORABEHERETAN BATEZ BESTE ERANTZUTEKO DENBORA MINUTUTAN	2017. URTEA	2016. URTEA
Harrapaketa	4	4
Txirrindularien/motorgidarien eroria	5	4
Talka zaurituekin	2	4
Talka zauriturik gabe	5	5
Galtzadatik irtetea/pasatzea kalteekin	4	5
Suteak	5	4





### MARTXOAK 22 OSTEGUNA

**Getxo Live!** 20:00etan Pablo Ríos (popa) Kirol Portuko Silver's Tavern-en.

**Gizatiar.** Romo-Areetako giza- eta kultura-elkarte. Aurkezpena: Sevilharako txangoa, 17:00etan; eta hitzaldia: "Algo va a cambiar... Gizatiar del futuro, ¿te lo vas a perder?". Hizlaria: M<sup>a</sup> Gutierrez (EDE Fundazioa), 18:00etan, Romoko San Jose parrokiako lokaletan.

### MARTXOAK 23 OSTIRALA

**Hitzaldi musikalka.** "Evolución histórica de la orquesta sinfónica. Innovaciones a partir del s. XIX", Jose M<sup>a</sup> Bretos Linazarekin. 18:30ean, Areetako Musika Eskolako fonotekan. Sarrera 3€.

**Haur tailerra.** Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 18:00-19:00h. Gobelako liburutegian. Izena emateko: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

**Zinema Paradiso.** Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Detroit" proiektioa (ingelesez) azpiztituluekin eta foruma. Zuzendaria: Kathryn Bigelow. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 2,90€.

**Kontzertu sakroa.** 20:00etan, Areetako Ama Mesedeetako elizan, Ondarreta Abesbatza eta Arima Kamerata Ganbera Orkestra.

**Kontzertua.** 20:00etan, Algortako Bariko San Nikolas elizan, Haendelen Mesias, Andrés Isasi abesbatza- ren eskutik.

**Hitzaldia.** "155. artikulua eta Katauniako prosezua". Hizlaria: Miren Gorrotxategi Azurmendi, EHUKo Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea eta Bizkaiko senataria. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean. Antolatzailea: Ezkerretik Foroa.

### MARTXOAK 24 LARUNBATA

**Haur tailerra.** Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 18:00-19:00h., Villamoenteko liburutegian. Izena emateko: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

**Antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Sherezade y las capas de la cebolla", Vaivén Producciones-en eskutik. Sarrera 10€.

### MARTXOAK 25 IGANDEA

**Haur antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Jon Braun", Anita Maravillas-en eskutik. Euskaraz. Sarrera 5€.

### MARTXOAK 26 ASTELEHENA

**Ikasteko gelak Romo.** Aste Santuko oporraldian, ikasteko gelak zabalduko dira udal Euskaltegian, beheko solairuan (Lope de Vega, 12-Romon). Zabalik egongo dira: martxoak 26, 27 eta 28, eta apirilak 3, 4, 5, 6 eta 7. Ordutegia: 08:30etatik 14:30ak arte eta 16:00etatik 20:30ak arte. Apirilak 7, 09:00etatik 13:00ak arte.

### MARTXOAK 27 ASTEARTEA

**Kontzertu sakroa.** 20:00etan, Santa Anako elizan, Areetxo Ganbera Abesbatza-aren eskutik.

### MARTXOAK 31 LARUNBATA

**Trekking Trekkinga Madeirako irlan barrena.** Apirilaren 7ra arte. Ostatur Funchalen. Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. Informazioa: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) edo 606 63 71 28 (whatsapp).

### APIRILAK 3 ASTEARTEA

**XXXV. Haur Zinema Jardunaldiak.** Ikusi 4. orrialdea.

### APIRILAK 4 ASTEAZKENA

**XXXV. Haur Zinema Jardunaldiak.** Ikusi 4. orrialdea.

### APIRILAK 5 OSTEGUNA

**XXXV. Haur Zinema Jardunaldiak.** Ikusi 4. orrialdea.

**Getxo Live!** 20:00etan, Gringo (rocka), Areetako El Comercio tabernan.

### APIRILAK 6 OSTIRALA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Sergio Monederoren "Boxealariak" (argazkiak) izeneko erakusketa. Hilaren 21era arte.

**Erakusketa.** Algortako Torrene Aretoan, Eztizen La Cruzen "Acordados de las manos, cómo des-cansan sin apretar" (pinturak eta marrazkiak) izeneko erakusketa. Hilaren 29ra arte.

**XXXV. Haur Zinema Jardunaldiak.** Ikusi 4. orrialdea.

**Zinema Paradiso.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpiztituludun jaotzirik bertsoan, "Maravilloso Boccaccio" filmaren proiektioa eta foruma. Hizk: italiara. Zuzendariak: Paolo & Vittorio Taviani. 12 urtetik gorakoentzat. 2,90€.

### APIRILAK 7 LARUNBATA

**Dantza plazan.** Algortako San Nikolas plazan, 20:00etan, euskal dantzak Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola bertoko taldeen eskutik. Antolatzailea: Itxartu Taldea.

### APIRILAK 8 IGANDEA

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Maya erlea. Ezti-jokoak". Euskaraz. Adin guztientzat. 2,10€.

## Zabalik dago saharar umeak udan hartzeko izena emateko epea

Apirilaren 15era arte zabalik izango da uztailean eta abuztuaren etxean saharar umeak hartzeko izena emateko epea. Ekimena ATFAL Sahararen aldeko Getxoko Elkartek antolatzen du, Udalarekin elkarlanean, *Oporrak bakean* kanpainaren barruan. Aldi baterako harrera-programa honetan udalerriko egoiliarrek zein bertan lan egiten dutenek har dezakete parte. *Uda honetan haur saharar bat etxean hartu* lelopean, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haurrei udan Argeliako Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetako errealitate gordina ahaztu ahal izateko aukera eskaintzen die programak. Egitarauaren helburuak dira adingabekoen oinarriko beharrezkoak asetzea aipatutako hilabeteetan; azterketa mediko orokorra, begietakoa eta hortzetakoa ahalbidetzea; beren bizilekuko klima gogorra

pairatzea ekiditea, tenperatura 55°Cra iritsi ahal direlako; trukaketa kulturala, eta getxotarren artean Saharako herriak bizi duen egoeraz sentsibilitatea sortzea.

Urtero bezala, Udalak, besteak beste, honako gastu hauetarako ematen du diru-laguntza: kanpamentuetatik etor-

tzeko eta joateko bidaiarako, txangoetarako eta programaren harira antolatzen diren ekitaldietarako. Pertsona interesatuek izen-ematea egin edo informazioa eska dezakete 658 751 359 / [atfalgetxo@gmail.com](mailto:atfalgetxo@gmail.com) edo Getxoko Udaleko Lankidetzaren sailean, 94 466 00 17 / [lankidetz@getxo.net](mailto:lankidetz@getxo.net).



### Udal gobernua ziurtatu du aspalditik ari dela lanean egoera horri konponbidea emateko

## Gizarte langileek lanpostu hutsak betetzeko eskatzen dute

Gizarte Zerbitzuetako langileek prentsa oharrean agertu dute beren "ondoeza eta kezka udalaren erantzun ezaatik, arrazoi desberdinengatik betetzen ez diren lanpostuak ez ordezkatzeko orduan. Egoera hori historikoa da sailean, eta horregatik hori aldarrikatu dugu hainbat unetan: 2004an, 2007an, 2010ean, 2017an eta orain 2018an, hain zuzen ere, osasun baxak, eszedentziak edo beste arrazoi batzuegatik lanpostu hutsak betetzeko, horiek lanpostu batzuetan langilerik ez izatea eragiten dutelako, gainera batzuetan hilabeteetan zehar". Prentsa oharrean, langileek adierazi dute 2018an orain arte baja medikua duten bi lanpostu bete gabe daudela, bata otsailaren 8tik eta bestea urtarrilaren 24tik. Kolektiboak uste du egoera horrek ondorio larriak eragiten dituela zerbitzuan "eta lan egiten dugun pertsona eta familia batzuk arrisku egoeran daudela kontuan hartuta, huts dauden lanpostuak betetzeko eskatzen dugu, Getxoko herritarrei arreta integrala, duina eta kalitatezkoa eskaini ahal izateko". Udal gobernua, bere aldetik, ziurtatu du gizarte langileek ordezkatzeko konpromisoa dela eta horrela izan dela azken urteotan. "Ez dago erantzun faltarik izan, bai egon da batzuetan beranduko erantzuna, askotan gizarte langile libre edo ordezkari arinak aurkitzeko zailta-

sunagatik, baina Udala aspalditik ari da lanean egoera hori konpondu ahal izateko. Gizarte Zerbitzuekin kontu bereziarekin jokatzeko da eta egin den edozein eskaerari beti erantzun arina ematen saiatu da, baja, eszedentzia edo oporrak egiteko pertsona berbera izateko eskaera bezala". Gaur egun, Gizarte Zerbitzuetan lehenengo hitzordua zazpi eguneko epearen barruan izateko konpromisoa betetzen da. Udalak ez du Gizarte Langileen kategoriako lan postuak propiorik, 2010eko EPE-OPEN ez baitzen osatu, karrerako funtzionario gisa plaza atara zutenek aparte, ez zuelako beste inork ariketa gainditu. Bestalde, beste deialdi publikoetatik izandako lan postuak agortuta daude. Beste toki batzuetako postuetara jo da (Bilboko, Barakaldoko, Portugaleteko, Santurtziko eta Basauriko Udalak) eta baita Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetara eta Eusko Jaurlaritzaren IVAPera ere. Azken horrek martxoaren 6an 40 pertsonen zerrenda eman zuen. Azken asteotan deitu zaie horiei eta ez du inork eskaintza onartu. Hurrengo urratsa izango da IVAPi zerrenda zabaltzeko eskatzea eta Lanbidera ere jotzea, pertsonen zerrenda bat bidal dezan. Gaur egun dauden 14 langileetatik 2 falta dira.

## BERRI LABUR

**Aste Santuko ordutegia HABetan.** Martxoaren 26tik apirilaren 6ra bitartean, Aste Santua dela eta, Udaletxeko (Foruak 1), Algortako (Torrene 3) eta Areetako-Romoko (Mesedeetako 13, "Getxo Elkartegia" eraikina) Herritarren Arretarako Bulegoen ordutegia 08:00etatik 14:00ak arte izango da, astelehene-tik ostiralera. Andra Mariko bulegoa (Benturillena 17), berriz, itxita egongo da. Interesatuek online ere egin ditzakete izapideak, Administrazio Elektronikoren Bulegoaren bitartez, [www.getxo.eus/webgunean](http://www.getxo.eus/webgunean).

**Plaza librearen Jabe-kuntza Eskolaren "Feminismoa margotzen" tailerrean.** Jabe-kuntza Eskolak gogoratzen du oraindik ere plaza libre geratzen direla Feminismoa margotzen, euskaraz izango den ilustrazio ikastaroan, apirilaren 14an eta 15ean. Ikastaroa Jabe-kuntza Eskolan (Martikoena 16, Algorta) izango da, 10:00etatik 14:00etara. Prezioa 5€koa izango da, eta emakume getxotarrek dute lehentasuna. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da eskaera egiten dutenentzat. Informazioa eta izenematea: [www.getxo.eus/es/igualdad](http://www.getxo.eus/es/igualdad), 94 466 01 36 eta [berdintasuna@getxo.eus](mailto:berdintasuna@getxo.eus).

### "Don't be Dummy/Zuk ez duzu ordezkari" Aixerrota Institutuan.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Bide Heziketako Don't be Dummy/Zuk ez duzu ordezkari izeneko ekitaldi ibiltaria Aixerrota Institutura heldu zen aurreko astean eta 300 ikasle bako gehiagok hartu zuten parte. Ekimena trafikoko-istripuak prebenitzen saiatzen da eta Euskadiko ikastetxe ez unibertsitarioetako 15 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Orain arte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 16 udalerrik hartu dute parte.



- **Etxean aritzeko lan bila nabili.** Orduka edo bertan lo egiteko. Tel.: 620 09 00 55.

- **Neska lanerako prest,** adinekoak zaintzeko. Esperientzia frogagarria. Tel.: 602 39 11 98.

- **Neska lanerako prest,** barneko gisa lan egiteko. Tel.: 688 66 63 10.

- **Salgai josteko makina,** Sigma markakoa, berriztatua. Tel.: 94 464 15 60 (Magdalena).

Al tratarse de anuncios particulares, esta publicación no se hace responsable de la veracidad de su contenido.

**Servicio de atención telefónica del Gobierno Vasco a víctimas de malos tratos: 900 840 111**




## Eskaintza %28 hazi da, aurreko urtekoarekin alderatuta

# 73 plan udalerriaz gozatzeko Aste Santutik aurrera

Turismo Bulegoak Aste Santutik aurrera udalerriko baliabide eta zerbitzu garrantzitsuenaz gozatzeko eskaintza ezagutzera eman du, 73 esperientzia eta plan Getxoz gozatzeko liburuxkan jasotzen dena, hain zuzen ere. Liburuxka lau hizkuntzatan argitaratu da –gaztelaraz, ingelesez, euskaraz eta frantsesez- eta 43.000 ale banatuko dira. Bertan, udalerriko enpresen 232 eskaintza jasotzen da eta aipatzekoa da *irteera ziurtaturik* motako jardueren eskaintzaren hazkundera, 39 plan, %53 baino gehiago, hain zuzen ere. Halere, alde aurretik izena eman beharra eta gutxieneko taldea eskatzen dituzten hainbat jarduerak ere jasotzen dira liburuxkan. Aurrekoetan bezala, eskaintza lau atal handitan banatzen da: *Getxo Kosta* (24 plan), *Getxo Monumentala eta Kulturala* (24 plan), *Getxo Aktiboa* (13 plan) eta *Getxo Gastronomia* (12 plan).

Aurten jardueren eskaintza %28 igo da 2017 urtearekin konparatuta, eta %61,5 2016ko Aste Santuarekin konparatuta. Igoera hau, batez ere Kulturaren, Kirolaren eta Ongizatearen Turismoan eman da eta elkarlan publiko eta pribatuaren alde apustua egin duen *Ekonomia Sustatzeko Getxo 2020* estrategiarekin bat dator. Aipatzekoa da udalerriko enpresek adierazi duten konpromisoa eta egin duten esfortzua besteak beste *irteera ziurtatu* motako jarduerak aurrera eramateko. Jarduera hauek bereziki interesgarriak dira turistentzat eta bisitariarentzat; askotan ez baitute ezagutzen dagoen eskaintza zabala eta anitza, eta helmugara heldzen direnean berehala kontratatu nahi izaten dituzte. %72k lehenengo aldiz bisitatu Getxo baina, era berean, %20k hiru aldiz baino gehiago etorri dela. Publiko hori eskaintza berriei eta egonaldiko aukera gehiagorekin harritu nahi dugu.



### Aste Santua

Aste Santuetarako, Turismo Bulegoak, ohiko harrera eta informazio zerbitzuarekin indartuko diren

hainbat jarduera prestatu ditu.

Jarduera ziurtatuak (alde aurretik erreserbatu behar ez direnak) ondorengoak dira: Bizkaia Zubia

(oinezkoentzako ibiltokira igotzea), Begoñako Punta Galeriak eta Getxo Aquariuma. Halere, bisita gidatuak egongo dira Bizkaia Zubira eta Portu Zaharrera; bisita autogidatuak *Taxi Tour* eta *Hiri Handien Ibilbidea*; itsas-txangoak –belaontziz Abratik eta motordun ontzietan San Juan Gaztelugatxeraino-, eskaintza gastronomikoa eta gominga Bizkaia Zubian.

Aldez aurretik izena eman beharra eta talde minimoak eskaintzen dituzten jarduerak berriak hauek dira: marmitako tourra (bela & gastronomia), sukaldaritza familiar ikastaroa, pintxo-potea itsasadarretik eta ihes egiteko jolas aretoak (escape room). Halaber, beste hauek ere badaude: Getxon Surf egiten, Paddle Surf-a edo Piragua, Getxon korrika egitea: zapatilen poderioz, parapentea itsaslabarretatik eta Maridajea.

Turismo Bulegoak *Getxo Pass* dohako txartelaren edizio berri bat egin du. Getxon kontsumitzen duten bisitariak eta turistak deskontuekin eta opariekin saritzen dituen ekimenera udalerriko 46 establezimendu atxikitu dira.

Bizkaia Zubira inguratzen den bisitarien kopuruari behar besteko arreta eskaintzeko, egonaldia atsegina egiteko eta turistek eta bisitariak tokiko baliabideetara eta gunetara egin ahal dituzten joan-etorriak errazteko, Bizkaia Zubiaren ondoan martxan egongo da aldi baterako Informazio Turistikoaren Gunea. Udal Turismo Bulego nagusia, Eragia hondartzan, zabalik egongo da egunero, igande arratsaldetan izan ezkik.

Eskaintza horren inguruko informazio guztia: [www.getxo.eus/eu/turismo](http://www.getxo.eus/eu/turismo) eta sare sozialetan @Getxo-Turismo.

## Garbiketa intentsiboa egiten ari, Getxon





## 55.360€ baliabide ekonomikorik ez dutenentzat, euskara ikasteko

Beste urte batez, Udalak 70.360€ zuzenduko ditu euskara ikastea, ezagutzea eta erabiltzea sustatzeko diru-laguntzetara, hainbat alorretan banatuta. Zenbateko horretatik, 63.360€ gizabanakoei zuzendutako diru-laguntzen artean banatuko dira eta beste 7.000€ enpresei bideratutako artean. Hain zuzen ere, 55.360€ euskara ikasi nahi eta baliabide ekonomikorik ez dutela frogatzen duten getxotarrantzat izango dira. Aurten Udalak familia unitate eskatzaileen gehieneko diru-sarrerak areagotu egin ditu berriro, subentzioa herritar gehiagok eskatu ahal izateko. Iaz gehieneko diru-sarrerak areagotu izanaren ondorioz, euskara ikasteko 248 diru-laguntzatan 49.871€ banatu ziren, 2016an baino 11.000€ gehiago (163).

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da.

### Beste laguntza batzuk

Bestalde, aurreko urteotan bezala, Udalak 1.000€ onartu ditu Udaleko eta erakunde autonomoetako langileek eta zinegotziek euskara ikasteko. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. 6.000€ izango dira gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiten duten 17 eta 23 urte bitarteko gazteentzat. Kasu honetan eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaituko da. Beste 1.000€ elkarteetako aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskaraz, eta eskaerak aurkezteko epea abenduaren 31n amaituko da, eta azkenik, 7.000€ bideratuko dira, errotuluak, olanak, pertsianak, biniloak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko. Aurkezteko epea abenduaren 31n amaituko da enpresentzat.

## “Nahi dudalako” kanpaina

DBHko ikasketak amaitutakoan ikasleek euskaraz egiten jarraitzea animatzea da Udalak, Alkarbide, Bizkaiko Foru Aldundia eta EUDELekin batera, abian jarritako *Nahi dudalako* lelopeko kanpainaren helburua. Horren barruan udalerriko DBHko 3. eta 4. mailetako 1.355 familiek horren berri ematen duen eskutitza eta informazio esku-orria gazteentzat jaso dute etxean. Horietan jakinarazten zaie [www.nahidudalako.eus](http://www.nahidudalako.eus) webgunea eratu dela, gazteei etorkizunean hartu beharreko erabakia errazteko, bertan Bizkaian dagoen hezkuntza eskaintzaren berri baitago.

Aipatutako webgunean, era errezean, Bizkaian euskaraz eskaintzen diren Batxilergo zein Lanbide Heziketako ikasketak ikus daitezke, baita unibertsitateko euskarazko ikasketak ere. Sari batzuen zozketan parte hartzeko aukera ere eskaintzen die webguneak gazteei. Kanpaina honetan guztira Bizkaiko 16 udalek eta 2 mankomunitatek hartzen dute parte.

2017an Udalak 24 laguntza eman zituen gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egiteko, eta 16 errotulu eta elementu euskaraz ipini ziren (13 euskara hutsean eta 3 ele bietan).

Diru-laguntza horiekin batera, Udalak honako zerbitzu hauek mantenduko ditu: itzulpen zerbitzua (2017an 83 elkartek eta establezimenduk eskatutako 1.663 orri); aholkularitza; ekitaldietarako aurkezle euskaldunen zerbitzua (iaz 17 ekitaldi), eta merkatariei nahiz ostalariei doan eskaintzen dizkien itzulpen eta maketazio zerbitzuak.

Informazioa: <http://www.getxo.eus/eu/euskara/subvenciones-ayudas/subvenciones-ayudas-euskera>

## “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” kanpaina maiatzaren 31ra arte



Datorren maiatzaren 31ra arte mar txan izango da Getxon, beste urte batez, *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* lelopeko egitasmoa, irakurzaletasuna sustatzeko eta euskarazko literatura eta herrietako liburutegiak ezagutarazteko. Udalak, Euskaltzaleen Topaguneak eta EGIZU elkarteak sustatuta, udal liburutegiek eta hainbat liburu-dendak kolaboratzen dute.

Udal liburutegietan, maileguan harturiko euskarazko liburu bat irakurri eta itzuli ondoren, irakurleak irakurketa-fitxa erraza bete eta erosketa-txeke bat jasoko du. Txeke horrek irakurleak nahi duen beste liburu bat %35 merkeago erosteko balioko du, Algortako Elkar, Areetako Bolibar-Elordui edo Romoko Gobelaurre liburu dendetan, ekainaren 9ra arte. Azken pausua, liburu oparitzea izango da, lagun bati, senide bati, edo norbere buruari.

Gainera, apirila eta maiatza bukatu, 30€ko erosketa-txeke bana zozketatuko da, hilabete horretako parte hartzaileen artean, aipatutako liburu-dendetan erabiltzeko.

### Sendiren bi jarduera

Bestalde, SENDI proiektuaren barruan, apirilaren bigarren hamabostaldian izango diren bi jardueratarako izena emateko epea zabalik dago. Alde batetik, apirilaren 15ean, igandean, Urdaibaiko Basondorako irteera izango da Olgetan euskaraz taldeentzat dabilzan ume eta gurasoentzat, eta lekurik geratuz gero gainontzekoentzat ere. Bestetik, apirilaren 27tik 29ra bizikleta-asteburua antolatu dute Bardeetan (Nafarroa), euskaraz komunikatu daitezkeen ume eta gurasoentzat. Informazioa eta izenematea: <http://www.egizu.eus/send>

## Ondarreta, Areetxo eta Andrés Isasiren kontzertu sakroak

Ostiralean, martxoak 23, 20:00etan, Areetako Ondarreta abesbatzak, Arima kamerata ganbera-orkestrarekin batera, kontzertu sakroa eskainiko du Areetako Ama Mesedeetako elizan. Iñaki Morenoren zuzendaritzapean, Corelli, Pärt, Rachmaninov, Mendelssohn-Bartoldy eta Mozart-en lanak interpretatuko dituzte.

Egun eta ordu berean, Algortako Bariko San Nikolas parrokian, Andrés Isasi abesbatzak, Imanol Ormazak zuzenduta, Häendel-en Messiah-ren bigarren parte eta Tomás Luis de Victoria, Bach, Mozart, Fauré, Duruflé eta Alcaraz-en lanak eskainiko ditu.

Azkenik, asteartean, hilak 27, Areetxo abesbatzak, Manuel Torre Lledók zuzenduta, *Passion* kontzertua eskainiko du Areetako Santa Ana parrokian 20:00etan. Cristok sufritutako pasioan, heriotzan eta pizkundean oinarrituta, besteak beste, Suriano, Luis de Victoria, Fauré eta Bach-en abestiak eskainiko dituzte.

**Haur Zinema Jardunaldiak**  
**Jornadas de Cine Infantil**  
Andrés Isasi Musika Eskola / Escuela de Música Andrés Isasi (AREETA)

APIRILA 3.4.5.6 ABRIL > 17:00 2,10€

EUSKARAZ

3 **SALVANDO REINO DEL OZ**

4 **THE JUNGLE BUNCH**  
OIHANEKO KUADRILLA

5 **TRIO**  
LA BÚSQUDA DEL SANTUARIO SAGRADO

6 **RANAS**  
MISIÓN EN EL ÁRTICO

Getxo

**“Sol de invierno” poema-liburua aurkeztu dute**

Isabel González Ganzo getxotarrak *Sol de invierno* aurkeztu berri du, bere lehenengo poema-liburua, hain zuzen. Bertan, mota askotako lanak jasotzen dira, batez ere poema intimistak, baita biografikoak ere. Josu Monteroren idazkera eta literatura tailerretan ikasi du eta Poetalia rapsoden taldearen partaidea da.





## Getxo Kirolak-ek 27.000 harpidedun inguru izaten jarraitzen du

Getxo Kirolak udal erakunde autonomoak 26.817 harpidetu zituen ekitaldiaren amaieran. Hau da, 2016. urtean baino 286 pertsona, harpidetu, gutxiagorekin amaitu zuen iazko ekitaldia (haietatik 217 ez zeuden udalerrian erroldatuta). Hala ere, getxotarren % 31k udalako kirol-zerbitzuetako harpidedun txartela daukate. Portzentaje horrek inguruko herri nagusietako harpidedunen ratioaren gainetik kokatzen du udalerrria.

**“Thinking Fadura partaidetza-prozesua apirilaren erdialdera hasiko da, eta, haren bidez, herritarrekin batera diseinatu nahi dugun Fadurako kirol-parke publiko berriko ekipamenduak hobetu ahal izango ditugu”**

Kiroltako zinegotzi den Álvaro Gonzálezek azaldu duenez, “gure kiroldegietako okupazio-indizeak oso altua izaten jarraitzen du; horregatik hobetu behar ditugu Gobela ibaiko obren eragina jasan zuten espazioak, handitzen jarraitu ahal izateko, bai eskaintzan, bai harpidedun eta erabiltzaile kopuruetan ere. Hori dela eta, gogora ekarri behar da zeinen garrantzitsua izango den Thinking Fadura partaidetza-prozesua. Apirilaren erdialdera hasiko da, eta, haren bidez, herritarrekin batera diseinatu nahi dugun Fadurako kirol-parke publiko berriko ekipamenduak hobetu ahal izango ditugu”. Neguko eta udako kanpainetan, guztira 7.820 pertsonak parte hartu zuten antolatu ziren kirol ikastaroetan, edo Fadurako eta Gobelako kiroldegietako fitness eta muskulazioko gimnasioak erabili zituzten. Instalazioak alokatzeari dagokionez, azpimarratzekoa da padel-pistak daudela lehenengo tokian (10.000 orduz alokatu ziren urtean); bigarren tokian, tenis-pistak ditugu (6.100 ordu urtean); eta, hiru-garrenean, frontoiak daude (2.250

ordu urtean). Fadurako, Gobelako eta Andra Mariko udal kiroldegietan, gainera, jarduera zabala izan zen eta kirol elkarteek antolatutako 3.285 txapelketa egin ziren guztira.

Bai udal instalazioetan bai herriko beste toki batzuetan antolatutako kirol-ekitaldiei dagokienez, guzti-

ra 808 izan ziren Getxon. Horietan, 57.300 kirolari inguruk hartu zuten parte, eta 225.500 ikusle izan ziren. Halaber, Getxo Kirolak-en urteko memoriaren arabera, Lehen Hezkuntzako 2.200 ikaslek hartu zuten parte eskola-kiroleko askotariko jardueretan.



### Lau domina igeriketan, Gauderentzat

Gaude Kirol Elkarteak lau domina eskuratu zituen Espainiako Igeriketa Txapelketetan; Cadizeko San Fernando herrian jokatu dira duela gutxi. Getxoko elkarte horretako sei igerilarik parte hartu zuten txapelketan eta zilarrezko hiru domina eta brontzezko bat lortu zituzten, guztiak emakumezkoetan. Adimen urritasuna duten igerilarietako Espainiako Txapelketa horretan 300 kirolarik baino gehiagok hartu zuten parte. Argazkian, Gauderen ordezkari bat.



### “Bullyngaren kontrako ipuinak” I. Lehiaketaren sariak

Fair Saturday Fundazioak antolatutako Bullyngaren kontrako ipuinak izeneko I. Lehiaketaren sariak banatu berri dira Bilborock aretoan. 15 irabazletako bat, 18 eta 23 urte bitarteko mailan, Maria Muñoz Lopez getxotarra izan zen. Berak liburu baten ale bat jasotzeaz gain, 100€-ko txekoa ere jaso zuen, beraiek aukeratutako elkarte bati emateko. Getxotarrak NACE (Noalacosoescolar) izeneko elkarteari eman zion eta Iñaki Zubizarreta getxotarrak ACBko jokalaria ohi profesionalak eta elkarteko kideak jaso zuen.

## Raspas eta Getxo Arraun hiru dominarekin itzuli dira Banyolesetik

Raspas del Embarcadero bi dominarekin eta Getxo Arraun beste batekin itzuli ziren Udaberriko Opena-Selektzio espainiarrean sartzeko Estropada jokatu eta gero. Iragan asteburuan jokatu zen Banyolesen (Girona). Virginia Díazek urrezko domina eskuratu zuen eta Aimar Astigarragak zilarrezkoa skiffean (1x), absolutu eta kadeteen, hurrenez hurren. Hirugarren domina, brontzezkoa, Getxo Arraunen 2- ontziarentzat izan zen, Maialen Ezkurra eta Oihane Pradok osatutakoa.

Virginia Díaz -08:14,60-, Rocío Laori (Náutico Sevilla) -08:21,78-, eta Natalia Migueli (R.C. de Labradores) -08:27,65-, gailendu zitzaizkien. Aimar Astigarraga -05:46,01-, Caetano Hortarengandik (Club do Mar de Noia) hamaika bat segundora helmugaratu zen. Ezkurra eta Pradok -08:12,47-, Santiagotarrak baino zortzi segundo eta txapeldunak (Amposta) baino 40 gehiago egin zuten.

Estatuko selektzioaren kontzentrazioetan dira, astelehenera arte, martxoak 26, Virginia Díaz (maila absolutuan) eta Alex Regueiro (Getxo Arrauneko 23 urtez azpikoa), nazioarteko lehenengo txapelketetan parte hartuko duten taldeak osatzeko probak egiteko.

## 21 domina Getxo IWrentzat

Getxo IW taldeak 21 domina lortu zituen Euskal Herriko Neguko Igeriketa Txapelketan, maila absolutuan (urrezko zazpi, zilarrezko beste zazpi eta brontzezko hiru) eta juniorretan (urrezko bat, zilarrezko bi eta brontzezko bat).

Taldeka, Getxo IW bigarren sailkatu zen emakumezkoen senior mailan eta bosgarren gizonezkoetan; txapelketako sailkapen nagusian, hirugarrena izan zen. Eta junior mailari dagokionez, bosgarren lotu zen gizonezkoetan eta 13. emakumezkoetan. Orotara, kategoria guztiak batuta, zortzigarren tokian sailkatu zen taldea.

## Ateak zabaltzeko eguna kirol egokituarentzat

Larunbat honetan, martxoaren 24an, ateak zabaltzeko eguna antolatuko da Fadurako kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara, kirol egokitu eta inklusi-boatentzat. Haszter elkarteak Getxo Kirolak-ekin batera antolatutako jarduerak, areto-futbola, gimnasia erritmikoa, igeriketa, saskibaloia, hockeya, padela, boccia eta kirol anitza jasotzen ditu, besteak beste. Elkartei lotutako kirola-eskolak ez ezik, dibertsitate funtzionala duten eta interesatuta dauden guztiak ere har dezakete parte. Informazioa lortzeko eta izena emateko: [haszter-kirola@gmail.com](mailto:haszter-kirola@gmail.com).



# Udal talde politikoaren iritzia



## EUSKARA ETA ANIZTASUNA EUROPAN

EAJ-PNV Euskadi osoan, eta Getxon ere, sustatzen ari den ekimena da MINORITY SAFEPAK. Helburua da Europako erakundeei legeria lotesle bat eskatzea, Europar Batasunean gutxiengo nazionalak kide garen herritarrei (50 milioitik gora gara) geure eskubideak bermatzeko. 'Minority SafePack' ekimenak milioi bat sinadura bildu behar ditu gutxienez Europar Batasuneko zazpi estatutan, apirilaren 3a baino lehen. Horrela, eskatu gura dugu harreman eta komunikazio arloko ondare hain berezia, hau da, hizkuntza gutxituren bat (gure kasuan euskara), daukaten, daukagun pertsonen hizkuntza- eskubideak babestu daitezela Europar Batasunean.

<http://www.minority-safe-pack.eu> webgunean sinatu dezakezu, nahi baldin baduzu Europak jakitea euskarak Europa behar duen neurri berean behar duela Europak euskara, eta bretoiara, eta galesa, eta katalana, eta hainbat eta hainbat hizkuntza. Izan ere, horrela bakarrik izan daiteke sinesgarria eta operatiboa Europar Batasunaren leloa: "Aniztasunean baturik". Eta uste dugu ekimen hau urrats garrantzitsua dela. Hala adierazi dute Imanol Landa Getxoko alkateak eta Koldo Iturbe Kultura zinegotziak. Horrela, kanpaina honekin bat egin gura izan dute, Europar Batasunak nazio eta hizkuntz gutxiengoetako pertsonak hobeto babestu ditzan eta Batasuna-

ren kultur eta hizkuntz aniztasuna indartu dezan. Apirilaren 3ra arte daukagu hori berresteko!!

Euskara sustatzea eta bultzatzea: geure kultur eta gizarte ondare nabarmenena, zeinetan Getxo aspalditik adibide garbia da, ekimenen, proiektuen eta, batik bat, euskalgintzarekin egiten duen lanaren birtartez. Aurten, 2018an, ekimenetako bi azpimarratu gura ditugu: 36.800 euroko diru-laguntza bideratuko da euskarazko eskolaz kanpoko jardueretarako, eta 200 ekimen antolatuko dituzte Getxoko ikastetxeetan 26 elkartek. Eta, bestetik, Sendi programa, Egizuk garatzen duena, urtebetez luzatuko da. Programa honek 24.200 euroko aurrekontua



dauka, eta beraren bidez 12 urtera arteko umeei eta euren familiek euskara erraztasunez eta naturaltasunez ezagutu, ikasi eta erabil dezakete.

PSE-EE  
PSOE

## MARTXOAREN 8A

Martxoaren 8 bakoitzean bezala, Getxoko Udalak emakumeen nazioarteko egunaren mobilizazioen berri eman zuen. Aurten, gure kultur inguruan emakumeen errealitate latzenetako bat nabarmendu zen: zaintza-aren eta etxeko lanen feminizazioa. Udala osatzen duten alderdi guztiek bat egin zuten ekimen batekin, lan horiei prestigio soziala eta ordain ekonomikoa eman gura dizkiena, eta gizarte antolaketa eraldatu nahi duena, eginkizun horiek gizonen eta emakumeen artean modu parekidean banatzeko.

Gizartearen gehiengo handi batek babestutako mobilizazioaren berotan, alderdi asko pankartaren atzean jarri ziren, egun batez ahaztuz benetako berdintasuna legeen bidez eraikitzen dela. Hain zuzen ere, gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna sustatzen duten legeen bidez, enpresen edo erakunde publikoen gobernu-organoean bi sexuak berdinduz egotea edo hezkuntza parekidea bultzatzen dituzten legeen bidez. Horiek, izan ere, funtsezko piezak dira PSE-EE (PSOE)ren ideietan eta eguneroko lanean, nahiz eta ez duten beti aurkitzen babesik gainerako alderdietan, oraingoan pankartaren atzean jartzea erabaki zuten arren.

Cs

## ADINEKOEN ZENTROA ALGORTAN

Getxoko Ciudadanos udal taldeak hurrengo osoko bilkuran Algortan (San Martin kaleko 17.ean, Getxolan zaharrean) adinekoen zentro bat sortzeko eskatuko du. Ondo dakigu Algortako nahiz Andra Mariko adineko pertsonen nolako zailtasunak dituzten elkarrekin biltzeko. Gaur egun ez baitute euren beharrezko neurriko instalaziorik. Eta guk hori aldatzeko lan egingo dugu. [herritarra@getxo.eus](mailto:herritarra@getxo.eus) 944660291



PP

## "BIKAITASUN BEKAK" GETXOKO IKASLERIK ONENENTZAT

PP-n Getxoko ikaslerik onenak saritzea proposatzen dugu oraingoan. Horretarako, "bikaintasun beka" sortzea planteatu nahi dugu, getxotar ikasleen esfortzua eta lana saritzeko helburuarekin. Hain zuzen ere, ikasleek ikasketetan egiten duten ahalegina baloratu gura dugu, batetik, eta familiei euren seme-alaben heziketan lagundu nahi diegu, bestetik. Bekak Lehen Hezkuntzako azken maila, DBH eta Batxilergoko 2. maila amaitu dituzten ikasleentzat izango dira, ez bakarrik Getxoko ikastetxeetan: udalerrri honetan erroldatuta egon arren ikasketak beste herri batzuetako ikastetxeetan egiten dituzten ikasleentzat ere badira.



Guk

## GETXOKO UDALAREN PREKARIOTASUNA

Gobernu taldea udalean eta haren erakunde autonomoetan sortzen ari den lan-prekariotasuna gero eta nabarmenagoa da, ikusten ari garenez. Aurtengo urtarrilean, gure udaleko eta haren erakunde autonomoetako langile funtzionarioek eta lan-kontratudun langileek protesta egin zuten, Getxoko Udalak 2005. urtean hartu zuen konpromiso bat, lanpostuen balorazio berria egitearena, behin eta berriro urratzen zuelako, modu sistematikoan. Bada, aste honetan argitaratara dira oinarritzko gizarte zerbi-

tzetako langileekin eta Getxo Kirolak zerbitzuak ematen dizkioten enpresek kontratatutako langileekin dauden arazo larriak. Gizarte-langileek gobernu taldearen jokabide sistematiko bat salatu dute: ez dira betetzen bajengatik, eszedentziengatik eta abarregatik hutsik dauden lanpostuak, eta horrek gizarte zerbitzuetan ondorio larriak dakartza, hala nola, **hitzorduei erantzuteko ezintasuna, premiako egoerei denbora eta forma egokietan erantzuteko ezintasuna...** Gure udalak kontratatutako enpresen langileria-arazoak ez

dira berriak: behinola etxeko etxeko laguntza-zerbitzuko langileak izan ziren bezala, joan den astean Getxo Kirolak kontratatutako langileak izan ziren baldintza prekarioak salatu zituztenak (soldatak izoztuta, opor falta, ...). Udaleko oposizioan ezin dugu egoera hori inola ere onartu. Horregatik, GUKek gainerako taldeei zerbait neurri proposatzen dizkie langile guztien eskubideak bermatzeko eta udal zerbitzuak ondo emateko helburuarekin. [guk@getxo.eus](mailto:guk@getxo.eus)

ehbildu

## GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOAK

Gazteentzako etxebizitza kolaboratiboen proiektua aurkeztu dugu jada. Etxebizitza arazoari aurre egiteko neurri zehatza eta egingarria da herriko gazteak emantzipazioan laguntzeko.

Proiektua zertan datza? Espazio amankomunen partekatzean oinarritzen da. Hala, gazteek sukualdea, egongela, garbigailu gela... konpartituko lituzkete eta gune pribatu gisa



mantenduko lukete logela. Nola? udalak hutsik dagoen eraikin bat egokitu, edo azpiegitura berri bat eraiki beharko luke, eta gazteek trukean alokairu xume bat eta lana eskaini beharko liokete komunitateari. Datozen asteotan proiektuaren inguruan zuten ekarpenak eta iritziak jaso nahi ditugu sare sozialen bidez, animatu eta parte hartu!